

Telefonia - zerbitzuak



14 egun natural dituzu, kontratua sinatu duzun egunetik zenbatzen hasita, **atzera egiteko eskubideaz** baliatzeko, hau da, kontratua ezeztatzeko, arrazoa justifikatu beharrik gabe. Baina kontuz, zuntza instalatu badizute, adibidez, beharbada konpentsazio bat eskatuko dizute.

Hala eskatzen baduzu, operadorea behartuta dago **kontratua idatziz edo euskarri iraunkorrean** ematera. Eska ezazu!



Faktura paperean **banakatuta** doan jasotzeko eskubidea duzu. **Aztertu** eta egiaztatu bertan agertzen dena zuzena dela eta ez zaizkizula kontratatu gabeko zerbitzuak kobratzen ari.



Prezioa edo zerbitzuak aldatzen badizkizute, gutxienez **hilabete lehenago** jakinarazi behar dizute. Kasu horretan, **kontratua** zigorrik gabe **bertan behera utz** dezakezu, iraunkortasun-konpromisoa izan arren.



Edozein unetan zerbitzuaren baja eskatzeko eskubidea duzu. Hala ere, iraunkortasun-konpromisoa sinatu baduzu eta oraindik amaitu ez bada, **penalizazio** bat ezarri ahal izango dizute.



Gorde fakturak kontratuarekin, publizitatearekin eta zerbitzuaren kontratazioarekin lotutako mezuekin batera, erreklamatzeko beharko dituzu.